

SANTURTZIN ERABILPEN PUBLIKORAKO GUNEETAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. Titulua.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Honako Ordenantza honen xedea erabilera publikorako guneean terrazak eta haien instalazio osagarriak jartzearen inguruan erregimen tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. artikulua.- Terraza kontzeptua.

Terrazatzat hartzen dira erabilpen publikorako guneean dauden mahai, aulki edo bestelako altzari multzoa eta baita mugitu daitezkeen berorren instalazio osagarriak ere, hala nola, eguzkitakoak, alboetako babesak, argia, berogailuak, eta abar, denak izanik legezko edo legezkoa izateko izapideetan den ostalaritza-establezimendu baten behin-behineko edo behin betiko osagarriak.

3. artikulua.- Ezartzeko eremua.

1. Honako Ordenantza hau Santurtziko Udalerriko erabilera publikorako gune guztietan (bide publikoa, gune libreak, berdeguneak, eta abar) ezar daiteke, nola titulartasun publikokoetan, hala pribatukoetan. Erabilera publikoko izaera berezko egoerak zein indarrean dagoen planak ezarritakoak baldintzatuko dute.

2. Araudi hau ezingo da ezarri, non-eta aginpidea duen Udal Agintaritzak erabakitako egutegia eta baldintzen arabera ospatzen diren herri-jaietako ekitaldiak direla-eta antolatutako jardueretarako instalazioetan, aurreko artikuluan adierazitako definizioaren baitakoak baldin badira ere.

4. artikulua.- Lizenzia onartzea

Erabilpen publikorako guneearako aipatu instalazioek "guztientzat" erabilera bereziko kategoria juridikoa dute eta horiek erabiltzeko, aurrez, udalaren lizenzia behar da, zein ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango den.

5. artikulua.- Lizenzia jasotzeko baldintzak

1. Lizenziak emandakotzat hartuko dira beti, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrenentzakoaren kalterik gabe; ez dago eskatzerik bere jardueran ari denean onuradunak egindako okerreetatik dagokion erantzukizun zibila edo

penala baztertu edo gutxitu dezan, eta titularra ez du salbuesten bestelako baimenak eskuratzeko beharretik, horrela dagokionean

2. Lizenziaren dokumentuan finkatuko dira instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak, hartuko duen azalera, baimenaren indarraldiko epea, eta beharrezkotzat hartzen diren gainontzeko berezitasunak

3. Lizenziak beti jabetzarik gabeko izaera izango du eta Udal Agintaritzak arrazoituta agindu ahal izango du baimena jasotako partikularrak bere instalazioak bide publikotik erretiratzea, trafiko, lan, hiritartze edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrengatik hori egitea komeni denean, eta guztia inongo kalte-ordainik izateko eskubiderik gabe

4. Terrazaren instalazioaren ondorioz bide publikoan eragindako kalteak lizenziaren titularrak konpondu beharko ditu

5.- Bide publikoa okupatzeko lizenziak Udalak interes orokorrekotzat jotzen dituen kultur ekintzak edo bestelakoak garatzearen kaltetan gabe emango dira.

6. Terraza batek bide publikoa okupatzeak Santurtziko Udalaren iritziz interes orokorrekoa den ekintza bat garatzea oztopatuko balu, terraza jaso egin beharko litzateke aipatu ekintza amaitu arte, lizenziaren jabeak ez lukeela izango inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik.

6.artikulua.- Denbora eremua edo Terrazak ezartzeko aldia

1.- Ostalaritzako terrazak hurrengo denboraldi hauetan baimenduko dira:

Urteroko denboraldia: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte

Denboraldi luzea: apirilaren 15etik urriaren 15era

Udako denboraldia: ekainaren 1etik irailaren 30era

Udako denboraldi laburra: uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

2.- Lizenziak denboraldi ez jarraituetarako ere eskatu ahal izango dira, betiere hil naturalekin lotuta. Baimen hauek urtero eskatuko dira eta eskaera egiten den unean zehaztu beharko da urte natural osoan zehar zein hiletan egongo diren terrazak instalatuta, gutxienez hilabete naturaleko aldiak izan beharko direla.

3.- Erabilerak dirauen bitartean ez da denboraldi-aldaketarik onartuko. Eskatzen den aldaketak hurrengo denboraldian baino ez du izango ondorioz.

II. Titulua.- BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATEA

7. artikulua.- Gehienez jar daitezkeen mahai eta aulki kopurua

1.- Baimendutako mahai eta aulki kopurua jarri ahal izango da, ez gehiago. Establezimendu bakoitzeko, gehienez ere 20 mahai baimenduko dira eta gehienez 4 aulki mahai bakoitzeko.

2.- Mahaiak borobilak edo karratuak izango dira eta mahai bakoitzak ezin izango du 1,50 m² baino gehiago okupatu, hurrengo artikuluko honetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3.- Bestelako altzari osagarriak instalatu ahal izango dira, hala nola, kupelak, hautsontziak edo antzeko altzariak betiere baimendutako gunearen barruan badaude eta hasieran aurkeztu zen proiektuan azaltzen badira.

Ez da baimenduko horrelakorik instalatzea dagokion fatxadaren ondo-ondoan, eta gorde beharko dira oinezkoentzako ordenantza honetan adierazitako 2 metroak.

8.artikulua.- Altzariak bete beharreko baldintzak

Terrazetan instalatu beharreko altzariak hurrengo betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

1.- Mahaiak eta aulkiak: Baimenean adierazi beharko da gehienez instalatu daitekeen mahaien eta aulkien kopurua eta baita gehienez baimendutako azalera ere, azken hau nagusituz. Mahaiak eta aulkiek zoruan gehienez 3,00 m²-ko guneko bat okupatu ahal izango dute, eta hau ere izango da azalera osoa kalkulatzeko aintzat hartuko den datua.

2.- Oin bakarreko mahaitxoak: Mahai batez eta lau aulkiz osatutako modulu bakoitzaren ordez oin bakarreko mahaitxoak jarri ahal izango dira (mahai altuak + lau aulki altu), horrelakoetan ez direla ez elementu kopurua, ez okupatzeko gehieneko azalera aldatuko. Elementu mota hau ezin izango da jarri %2tik gorako zeharreko aldapa duten espaloietan.

3.- Eguzkitakoak: Baimenduta egongo dira erdian oina duten eguzkitakoak, eta zabalik ez dute baimendutako azalera baino gehiago okupatuko, gutxienez 2,20 metroko altuera izango dutela.

4.- Berogailuak: Horien instalazioa lokalen kanpoko aldeko erabilerarako eskumena duten erakundeak homologatuta egon beharko dira. Ezin izango dira zoruan ainguratu. Zoruan izango duten okupazioa ezin izango da 0,60 metrotik gorakoa izan. Ahal dela, terrazaren alboetako muturretan jarriko dira, eta euren kokapenak ez du oinezkoen bidea eragotziko.

5.- Kupelak: 1,5 metro karratu okupatuko dute, eta datu hau hartuko da aintzat azalera osoa kalkulatzeko.

6.- Hautsontziak: Euren egonkortasun bermatuko duen diseinua izango dute, zorura ainguratu gabe zaborra eta zigarrokinak zabaldu ez daitezen. Gehienez berogailuetarako ezartzen diren neurria izango dute. Aintzat hartuko da plantan duten benetako okupazioa azalera osoaren kalkulua egiteko.

Irisgarritasunari buruzko araudia bete beharko dute eta bermatu beharko dute, besteak beste, proiektio bertikal erregular bat altuera eta inguru osoan.

9. artikulua.- Altzarien diseinua

1.- Hiri-altzariak nolabaiteko harmonia eta estetika ematearren, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Materialak: Hurrengo material hauetakoak izan beharko dute: egurra, aluminioa, altzairu herdoilgaitza, forja edo bestela biniloa, banbua, zumea eta abar. Mahai eta aulkien egitura ezin izango da plastikozkoa izan, egurra edo forjaren imitazio ona izan ezean, eta ezin izango du establezimenduaren izena ez den beste publizitate komertzial edo babeslerik izan.

b) Koloreak: Tonu neutroak erabili beharko dira (zuria, krema, metalizatua...) edo ilunak (morea, bourdeosa, granatea, berde iluna, beltza edo urdin iluna), eta ezin izango dira kolore deigarriak edota biziak erabili.

2.- Eguzkitakoek diseinu zehatza izango dute kolore kromatiko bateratuaz, inolaz ere biziak edo deigarriak, inguruarekin oreka gorde beharko dutelarik, udalaren irizpideari jarraituz.

3.- Bai eskaera berrietan, bai aldaketa eskatzen dutenetan adierazi beharko dira jarriko diren altzarien ezaugarriak, eta honek udal teknikarien oniritzia izan beharko dute. Horrez gain aulki, mahai eta erabili nahi diren bestelako elementu osagarrien argazkiak eraman beharko dira. Asmo horrekin entregatu beharko da terrazaren banaketaren planoak.

4.- Eguzkitakoek diseinudun oina izango dute, eta debekatuta egongo dira hormigoizko oinarriak.

5.- Elementu higigarriak babesa izango dute, higitzen direnean zarata atera ez dezaten.

6.- Altzariak egoera egokian egon beharko dute beti.

7.- Edonola ere, Udala izango da jartzen diren altzariei oniritzia emango diena, eta gorde beharko dituzte diseinu homogeneoko irizpideak.

10. artikulua.- Alboetako babesak

1.- Instalazioak hartzen duen azalera mugatu edo zedarritu egingo dute esparruan inguratzen duten alboetako babesek. Horien bidez ikusmen-urritasuna duten pertsonak oztopoak antzeman ahal izango dituzte, uneoro indarreko irisgarritasun-araudia betez. Hori guztia gunearen ezaugarriak direla eta, desegoki irizten ez baldin bazaio.

2.- Alboetako babes horiek mugikorrek izango dira eta edonola ere, desmuntagarriak, opakoak edo gardenak, baina beti inguruko baldintzetara egokituak. Oniritzia horretarako eskumena duen Udal teknikariak emango dio.

3.- Babesak ezingo dira dagokien instalazioetarako baimendutakoa baino zabalagoak izan, eta horien altuera 0,75 eta 1,5 metro artekoa izango da.

4.- Babes horiek egonkorrek eta jarraituak izan beharko dute, ertz zorrotzik gabekoak eta ez autoirristakorrek. Horrez gain, ez iraultzeko erresistentzia izan beharko dute.

III. Titulua. INSTALAZIO BALDINTZAK

1. Atala.- Baldintza Orokorrek

11. artikulua. Muga orokorrak

1.- Ezin izango da terrazarik eta bestelako elementu osagarriak hurrengo hauen aurrean jarri: atari, oinezkoen pasabide, elbarrituentzako aparkaleku-plaza, larrialdietako irteera, autobus geltoki, taxi geltoki, edukiontzi, pasabide eta zamalan guneen aurrean, ezta zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duten tokietan ere. Bestetik, ezin izango dituzte estali ur-hartuneak, suteetako ur-hartuneak, estolderiako erregistroak, garraio publikoaren geltokiak, transformazio zentro eta zerbitzu publikoen erregistro-kutxatilak, zerbitzu publikoek horiek bat-batean eta azkar erabiltzeko moduan utziz. Horrez gain, ezin izango dira jarri hirigintza, estetika eta ingurugiroarekin, trafikoarekin eta bide segurtasunarekin lotutako baldintzak direla eta, Udalak ez jartzeko erabakitzen duen tokietan.

2.- Ezin izango da inolako elementurik jarri baimendutako gunetik kanpo.

3.- Horrez gain, debekatu ahal izango da, behar bezala arrazoitua, terrazak edo oin bakarreko mahaiak jartzea, bide-segurtasun, herri-lan edo herritarren intereseko antzeko arrazoiak direla eta.

4.- Debekatuta dago baimendutako terrazetan edozein iturri akustikoa jartzea (musikala, girotzekoa, eta abar) eta baita zuzeneko musika eta irudi edo soinu ekipoak ere.

5.- Debekatuta dago terraza edo establezimenduari zerbitzua ematearren kanpoan barrarik edo bestelako salmahairik jartzea.

6.- Ez da baimenduko terrazak galtzadan jartzea, eta ez da terraza jartzeko baimenik emango erabilpen publikorako gunearen eta lokalaren artean ibilgailuak zirkulatzeko galtzada bat baldin badago, oinez gunetan garajeetarako sarbideak izan ezean.

7.- Edonola ere, instalazioak 9.2.24 artikuluan obra eta behin-behineko erabilpen lizentziari buruz HAPOn zehaztutakoa bete beharko du, eta baita indarrean dagoen irisgarritasun-araudia ere.

12. artikulua.- Hiri-altzarien arteko gutxieneko distantzia

Terrazak eta oin bakarreko mahaiak jartzeko gunean hiri altzarien instalazioak baldin badaude, horietatik izan beharreko gutxieneko hurrengo distantzia hauek ezarriko dira:

- a) Lerrokatutako zuhaitzia: Gutxienez 0,5 metroko distantzia. Ez da beharrezkoa horretara sarbide zuzena egotea.
- b) Banku eta paperontziak: Gutxienez 0,5 eta metro baten arteko distantzia inguru osoan, udal teknikariek erabakitzen dutenaren araberakoa, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.
- c) Telefono kabinak: Elbarrituentzat egokitu gabeko kabinetan gutxienez 0,5 metroko distantzia inguru osoan, eta metro batekoak egokitutakoetan, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.
- d) Iturriak: Gutxienez 2 metroko distantzia inguru osoan, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.
- e) Umeentzako jokoetarako gunea: Gutxienez 2 metroko distantzia gomazko zoladuraren ertzetik, gutxienez 4 metro zabaleko sarbidea utziz.

2. Atala. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan jartzea

13. artikulua.- Luzera

Orokorrean, baimendutako terrazaren luzerak ez du establezimenduaren fatxadaren aurreko aldeko luzera gaindituko, mugakide dituenek idatziz horretarako baimena eman ezean, betiere hamabi (12) metroko luzera gainditu gabe, alboetako babesak barne.

Ostalaritzako terrazaren alboan dagoen lokalaren (edo lokalen) baimena egiaztatzeko, jardueraren titularrak edota lokalaren jabeak sinatutako agiria erakutsi beharko da. Titularrak bere burua identifikatuko du izena eta bi deiturak, izen soziala, NA edo IFK eta helbidea azalduz. Horrez gain, baimen esplizitua, berariazkoa eta baldintzarik gabekoa emateko adierazpena jasoko du terraza jarri nahi den denboraldiaren iraupen osoari dagokiona, eta berariaz agertuko du ezeztazina dela.

14. artikulua.- Okupazioa

1.- Bakar-bakarrik emango da terrazak instalatzeko baimena espaloien zabalera gutxienez 3,20 metrokoa denean, aparkatzea debekatuta dagoen espaloietan izan ezik, horietan 3 metrokoa izango da.

Terrazaren elementuen ezaugarriak direla eta, beharrezkoa ez denean espaloien metro bat okupatzea aurreko paragrafoan exijitzen den espaloien gutxiengo zabalera gutxitu ahal izango da, betiere hurrengo puntuan adierazten dena betez.

2.- Aurreko artikuluetan aipatutako mugaketa orokorrei kalterik egin gabe, terrazak okupazio-baldintza hauetan oinarrituko dira:

- a) Instalazioak uneoro bermatu beharko du fatxadara bitartean oinezkoentzako gutxienez bi (2) metro zabaleko ibilbide iraunkor bat, oztoporik gabekoa.
- b) Oro har, luzetara ezarriko dira espaloien ertzaren ondoan, ertzeraino hoge (20) cm-ko tartea utzita gutxienez aparkatuta dauden ibilgailuetako pertsonen sarrera eta irteera ez oztopatzeko. Ez da horrela jokatu, ordea, babesteko hesia baldin badago; hala bada, gutxienez hamar (10) cm-ko tartea utzi beharko baita barneko proiektio bertikaletik hasita.

- c) Gutxienez sei (6) metro zabaleko espaloia duten kaleetan, eraikinen fatxaden ondoan gutxienez hiru (3) metro luzeko igarobide iraunkor bat utzi beharko da oinezkoentzat.
- d) Oinezkoentzako igarobide librea zabaldu ahal izango da edozein egoeratan, udaleko teknikariak hala erabakita, oinez jende asko ibiltzeak horrela jokatzeari agintzen duenean.
- e) Bermatu egingo da etengabeko sarbidea bestelako lokal, atari eta abarretara.

15. artikulua.- Fatxada bi kaletara duten establezimenduak

Establezimenduak bi fatxada duen kasuetan terraza bietako edozeinetan edo bietan jarri ahal izango da, betiere Ordenantza honetan zehaztutakoa betetzen bada eta terraza biek batuta honako araudian ezarritako edukiera baldintzak betetzen badute.

3. atala.- Oinez gunetan eta gune libre berezietan jarritako instalazioak

16. artikulua.- Oinez gunek

1.- Ordenantza ezartzeari begira, oinez gunetzat joko dira ordutegi edo denboraldi jakin batean ibilgailuetarako zati bat edo osorik itxita duten kaleak eta hori adierazten duten seinaleak dituztenak, haien egituratze fisikoa gorabehera.

2.- Oinez gunek publikoarentzako gunek dira, eta izaera hori nagusituko da beste edozein erabilpenen gainetik.

3.- Fatxadaren luzerako garapenari dagokionez, Ordenantza honen 13. artikuluan azaldutakoa bete beharko da.

4.- Edonola ere, instalazioak bermatu beharko du oinezkoek bi metro zabaletik gorako oztoporik gabeko igarobidea dutela fatxadatik bananduta.

5.- Terrazaren luzerako garapena bidearen ardatzetik doanean eta bertan ostalaritza-establezimendu bat baino gehiago daudenean, hauek banatu beharko dute terrazak ezartzeko zabalera erabilgarria, ez bada baimendu egin dela bidearen alde batean terraza bat ezartzea, eta gerora aurkezten dela aurreko fatxadarako okupazio-eskaera bat, ez badituena artikulua honetan zehaztutako gutxiengo baldintzak betetzen.

6.- Terrazak eta oin bakarreko mahaiak gutxienez zortzi (8) metro zabal diren oinez guneeetan baino ezin izango dira jarri, eta euren kokapenak utziko du oztoporik gabeko oinezkoentzako igarobidea eta baita babes zibileko ibilgailuak, anbulantzia, garbiketa zerbitzukoak eta abar pasatzeko tokia ere, horretarako gutxienez hiru (3) metro zabaleko lekua utziz. Bideak gehienez %40-tik beherako okupazioa izango du zabaleran.

Ostalaritza-establezimendu bat baino gehiago daudenean, gutxienez 2 metroko igarobidea utziko da bidearen alde bietako fatxadetatik, eta igarobideetako batek arestian aipatutako 3 metroetako tokia utzi beharko du halabeharrez.

7.- Hamabost (15) metro edo gehiagoko zabalera duten oinez guneeetan bermatu egingo da beti egongo dela lau (4) metrotik gorako zabalera duen oinezkoentzako bidea, oztoporik gabekoa, fatxadaren alde bietan bestela bat egongo da erdian, hiri-altzarien baldintzen arabera. Edonola ere, bermatu beharko dira fatxadatik bi metro libre egongo direla bidearen alde bietan.

17.artikulua.- Enparantza eta gune libre bereziak

1.- Enparantza edo gune libre bereziak jendea elkartzeko tokiak dira batez ere, horregatik, izaera hori nagusituko da beste edozein erabilpenen gainetik.

2.- Gune libre berezizat joko dira beste bide mota batekoak ez diren erabilera publikorako gune guztiak.

3.- Gune hauetan terrazak eta oin bakarreko mahaiak ezartzeko baimen-eskaerak Udal Administrazioak ebatziko ditu kasu zehatz bakoitzak dituen berezitasunak aintzat hartuta eta hurrengo lerrootan aipatzen diren muga orokor hauei jarraituz:

a) Instalazioak ez du gaindituko etenik gabeko hamabi (12) metroko luzera

b) Oztoporik gabeko oinezkoentzako ibilbide bat bermatuko da, zeinek gutxienez lau (4) metroko zabalera izango duen fatxadaren lerrokadura bakoitzean, bestela, bat egongo da erdian, bertan dauden hiri-altzarien baldintzen arabera.

c) Uneoro egongo da bermatuta lokal, atari eta gainerako toki guztietarako sarbidea

4.- Gehienezko muga hori alde batera utzita, proiektuan jasotako instalazioak jarduera nagusia dagoen lokaleko fatxadaren luzera gainditzen badu, eta luzetarako garapena ostalaritzako establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren aldamenean badago, behar bezala egiaztatu beharko da aurrean

egongo diren gainontzeko lokaletako titularrak ados daudela 13. artikuluan adierazitako eran.

5.- Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerak direla eta, (adibidez enparantza eta arkupeetan terrazak ez duenean aukerarik ematen bidea modu egokian erabiltzeko, nahiz eta oztoporik gabekoa izan eta fatxadatik 4 metrotik gorako distantzian egon) gertatuko balitz terraza edo oin bakarreko mahaia establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri behar izatea, baimena eman ahal izango litzateke Udalak proposatzen dituen diseinu eta baldintzekin bat etorrita, eta berdin-berdin gorde beharko litzateke oinezkoentzako ibilbideetarako exijitutako zabalera.

6.- Gunearen baldintzek hala agintzen dutenean, Udalak baimena emango du betiere aintzat hartuta inguruaren egoera, ikustean sortzen duen inpaktua, bertan egoten den jende eta ibilgailu kopurua eta baita garrantzitsu deritzen bestelako egoerak ere, eta saiatu egingo da ahal den neurrian araudi orokorra ezartzen.

IV. TITULUA. BAIMENAK IZAPIDETU ETA EMATEA

18.artikulua.- Eskaerarako legitimazioa

1.- Terraza jartzeko baimena eskatu ahal izango dute jarduera nagusiko lizentzien titularrek edo zabaltzeko lizentzien eskatzaileek

2.- Titularra izango da beti terraza ezartzeko baimenak dakartzan betebeharraren guztien erantzulea, eta pertsona juridikoa izatekotan, ordezkari gisa azaltzen dena.

3.- Baimenaren titularrak edonoiz egiaztatu beharko du dagokion babes zibileko aseguruua duela, udalak hala eskatuz gero. Aseguruua egingo da jarduerak izan dezakeen arriskuagatik, eta bermatuko du terraza edo bertako altzarien funtzionamenduak sortutako balizko kalteen ordaina.

19. artikulua.- Baimen-eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Interesdunak baimenaren eskaera egokia aurkeztu beharko du Udaletxeko Erregistro Nagusian, eredu ofizialari jarraituz egina, non hurrengo datu hauek adieraziko diren:

- a. Eskatzailearen izen-abizenak edo arrazoi soziala, edo bere izenean diharduen pertsonarena eta jakinarazpenak helarazteko tokia.

- b. Eskatzailearen beste datu batzuk: helbidea, telefono-zenbakia eta NA
- c. Jarduera nagusiaren izena eta kokalekua
- d. Instalazioa jartzeko nahi den epea
- e. Lokal nagusiari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbaki finkoa.
- f. Bankuko kontu zenbaki bat

2.- Eskaerarekin batera, hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a. Jarduera nagusia gauzatzeko baimena duela adierazten duen adierazpena (zabaltzeko lizentzia edo titulartasuna aldatu dela adierazten duen lizentzia)

Eskatzaileak lizentziarik ez badu aurkeztu beharko du lizentzia eskatu den herriko Udaletxeko Erregistro Nagusian erregistratutako instantzia.

- b. Lokalaren kokapenaren planoak, non zehaztuko diren instalazioak okupatuko duen azalera, fatxadaren luzera eta dauden igarobideen zabalera. Horrez gain, adierazi beharko da edozein oztopo finko (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, bankuak, hiri-altzariak, eta abar) eta udal zerbitzuetan izan dezakeen eragina (ura, saneamendua, gasa, eta abar).
- c. Plano zehatza (1:50 eskalan), non jasoko den instalazioa ezarriko den bide publikoaren tartea, bertan zehaztuz mahai eta aulkien kopuru zehatza eta berorien banaketa, alboetako babesak, landare-ontziak, eguzkitakoak, eta abar (plantan nola proiektatzen diren adieraziz).

3.- Segurtasun eta apaingarritasun arrazoiengatik eta lehenago udal teknikariak hala iritzita, beharrezkotzat jotzen bada, artikuluan honetan aipatzen den proiektua eskumendun teknikariaren sinadurak bermatuta egon beharko da.

4.- 13. artikuluan ezarritako kasuan, eskaerarekin batera ondoko establezimenduetako jabeen baimena duela egiaztatzea beharko da.

20. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea

1.- Eskabideak aurreko ekitaldiko azaroaren 1etik 30era bitartean egin beharko dira. Ez da horrela jokatu den denboraldia urtebetetik beherakoa denean, kasu horretan eskabideak hilabete lehenago egin beharko baitira gutxienez, denboraldi horren hasierako eguna aintzat hartuta. Eskabidea

egiteko finkatuta dauden epeak bete gabe egiten diren eskabideak iraupen laburragoko denboraldirako terrazen baimen-eskabide gisa izapidetuko dira.

2.- Etena duten aldietarako eskaerak ere aurkeztu beharko dira azaroaren 1etik 30erako tarte horretan eta terraza jartzeko aldia adierazi beharko dute honako araudiaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

3.- Aurreko ataletan ezarritako epeetatik kanpo egindako eskaerak hurrengo kasu hauetan baino ez dira izapidetuko:

- a) Baimendu litezkeen ostalaritza-establezimendu berriak
- b) Establezimenduak zeinen zabaltzeko lizentziaren titularra aldatu den.
- c) Hurrengo hau aipatzen duten eskaerak: okupazioa arautzea berorren titularrak egoera legeztatzeko interesa duela eta egiaztatzen duela eskaerarekin batera eta ezin gezurtatu daitezkeen frogen bidez ordaindu egin duela baimenik gabe egindako jabego publikoaren okupazioagatik jasotako isuna.
- f) Gune publikoaren konfigurazioa aldatzen denean, eta honek terraza jartzea ahalbidetzen duenean.

Kasu hauetan eskaera edonoiz egin ahal izango da eta berau hilabeteko epean ebatziko da. Edonola ere, eskaera hauek 6. artikuluan ezartzen diren terraza-denboraldietako baten bati buruzkoa izan beharko dira.

4.- Baimendutako terraza duten ostalaritza-establezimenduek honako artikulua lehengo paragrafoan adierazitako deialdi edo epe orokorra erabiliko dute berorren instalazio aldia edo konfigurazio fisikoa aldatzea proposatzeko.

21. artikulua.- Baimena ematea

1.- Eskaera ordenantza honetan eskatzen diren baldintzen arabera egin ondoren, ikuskatzeko bisita egingo da edo eskatzailearekin jarriko da harremanetan terrazaren neurri zehatza eta berorren kokapena zein den jakinarazteko, eta aurretiko txosten tekniko eta juridikoak aurkeztu ondoren, udaleko agintaritza eskudunak ebatziko du hilabeteko epean. Adierazitako epean ebazten ez bada, ez onartutzat joko da administrazioaren isiltasuna argudiatuz.

2.- Nolanahi ere, baimena emateko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan, ostalaritzako establezimenduaren azalera erabilgarria eta baimendutako gehienezko edukiera, hauek erreferente nagusia izango direlarik, betiere irizpen partikularraren mende. Era berean, aintzat hartuko da espazio publiko zehatz bakoitzean ostalaritzako edo beste mota bateko establezimenduren baten ondoan dagoen, bertan dauden zerbitzu publikoak, oinezkoen zirkulazioaren bizitasuna, bidean dagoen merkataritzako ekipamendu kopurua, eta abar.

3.- Txosten teknikoa agiri edo fitxa baten bidez islatuko da, eta, bertan, grafiko bidez jasoko dira baimenduko den instalazioaren baldintza zehatzak (kokapena, okupazioaren azalera, mahai eta aulkien kopurua eta bestelako osagaiak).

4.- Eskatu diren eta eskumena duen Udalak baimendu dituen osagai guztiak jasoko dira baimenetan, bai eta eskatu gabe ere, nahitaez jarri behar diren horiek ere.

22. artikulua.- Berritzea

1.- Lizentzien indarraldiak dagokien denboraldiaren iraupena izango du, baina automatikoki berrituko dira hurrengo ekitaldiko denboraldi bererarako, titularrak aurkakorik adierazten ez badu baimenduta dauden terrazen edozein instalazioaren denboraldi zehatza hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.

2.- Fatxadako lerroaren ondoan, eta aldameneko establezimenduetan eragina izanik, terraza jartzeko baimena duten establezimenduek hurrengo ekitaldirako baimena berritu nahi badute aurkeztu beharko dute, berriztatzeko jakinarazpena egiteko epearen barruan, aldameneko establezimenduen adostasun gaurkotua. Bestela, iraungi egingo da bide publikoaren okupazioa aldameneko eraikinetako fatxadan.

3.- Ez da berritzeko baimenik emango Ordenantza honetan ezarritakoa hausteagatik, zehapen larria edo oso larria izanik, eta ezta Udal Ogasunarekin zorrak sortu badira edo zaratari buruzko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo finkoa jaso bada ere, ez bada egiaztatzen dela ezarritako zehapena bete egin dela edota zorra ordaindu dela.

23. artikulua.- Baimenaren transmisioa

1.- Terraza jartzeko baimena transmitituko da zabaltze lizentziaren edo berorren ordezkoko baimenaren titularra aldatzen denean. Transmisioa emango da, hala badagokio, interesatuak lehenago eskatzen baldin badu.

2.- Transmisioa eskatzeko epea gehienez hilabetekoa izango da behin zabaltze lizentzia edo berorren ordezkoko baimenaren titularraren aldaketa

eskatzen denetik. Epe hau behin igarota, beste baimen bat eskatu beharko da honako Ordenantza honetan ezarritako epeetan.

3.- Baimena bakar-bakarrik transmititu ahal izango da 6 hilabetetik beherako jarduna duten establezimenduen kasuan. Bestela, aurreko atalean adierazitakoa ezarriko da.

V. TITULUA.- BAIMENDUTAKO ERABILPENAREN BALDINTZAK

24. artikulua.- Instalazioaren baldintzak eta berau erretiratzea

1.- Baimenaren titularrak egun osoan okupatutako gunea behar bezalako garbitasun eta higiene baldintzetan izateko betebeharra du, aldiari behin eskobatu eta garbitzeko lanak eginez.

2.- Horrez gain, eguna amaitzean altzari guztiak kendu beharko ditu, okupatutako gunea garbi-garbi utziz.

25. artikulua.- Ordutegia eta funtzionamendu-araudia

1.- Jarduera nagusiak baimenduta duen ordutegia gorabehera, terrazen erabilpena mugatuta geratuko da goizeko 9etatik gaueko 11etarako tartera, ostiral, larunbat eta jai bezperetan gau erdira arte egon ahal izango dira zabalik. Ekainaren 1etik irailaren 30era ixteko ordua 60 minutu atzeratu ahal izango da.

2.- Muntatze lana funtzionamendu ordutegia hasi baino ordu erdi lehenago hasi ahal izango da.

3.- Instalazioak hustu beharko dira ixteko orduaren hurrengo 30 minutuetan.

4.- Terrazaren funtzionamendu-ordutegia eta tokia hutsik uzteko aldia bukatu ondoren, bide publikoan dauden eta ainguratuta ez dauden osagai guztiak jaso beharko dira, eta ondorio horretarako dagoen lokal pribatu eta itxi batean gorde. Osagai horiek kentzeko lanek ez dute 30 minutu baino gehiago iraungo, eta lan hori egin bitartean ez da zaratarik, ez eragozpenik sortuko.

5.- Zamalanak baimenduta dauden gunetan, zamalanen ordutegiak berak mugatuko ditu terrazak muntatzen hasteko ordutegia eta berorien funtzionamendurakoa.

6.- Nolanahi ere, jarduera nagusiak funtzionamendu ordutegia amaitzen badu terrazetarako gehien gisa ezarritakoa baino lehen, terrazak itxi eta erretiratu beharko dituzte jarduera nagusiaren ordutegiaren arabera.

26. artikulua.- Lizentziaren titularraren betebeharrak

1.- Instalazioaren titularra bai baimendutako lurraren okupazioa, bai instalazioa bera eta bere elementu osagarriak, garbitasun, segurtasun eta apaingarrizko egoera ezin hobean mantentzera derrigortuta dago, eta horretarako beharrezkoak diren bitarteko guztiak erabiliko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak eta zorua sarritan eskobatzeko eta mahaiak eta aulkiak garbitzeko zerbitzuak.

2.- Lizentziaren titularrak garbitasunari eta hondakinak jaso eta garraiatzeari buruzko Santurtziko Ordenantzan ezarritakoa bete beharko du, eta bere gain hartuko du bide publikoan bere jarduerak sortutako hondakinak eta zikinkeria garbitzeko ardura.

3.-Baimendutako ordutegia bukatzen denean egunero-egunero bide publikoan jarritako elementu guztiak erretiratuko ditu. Ez da onartuko lokalaren fatxadaren ondoan inolako elementurik uztea.

4.- Lizentziaren titularrak Zaratei buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du. Mugi daitezkeen elementuek (mahaiak, aulkiak, eta abar) gomazko babesak edo antzekoak izango dituzte, mugitzean zaratarik atera ez dezaten.

5.- Lizentziaren titularrak Udalari dagozkion tasak ordaindu beharko dizkio, ezarri beharreko zerga ordenantzaren arabera.

6.- Lizentziaren titularrak bere gain hartu beharko du erabilpen publikorako gunean bere jardueran izandako ohiko edo ez ohiko erabilpena dela-eta, kaltetzen diren elementuen konponketa, hori guztia ezar daitezkeen zehapenen kalterik gabe.

7.- Titularra bide publikoan ostalaritza-jarduera gauzatzeagatik hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien arduraduna izango da, hala nola, istripuak, ezbeharrak eta abar. Horretarako babes zibileko poliza bat izan beharko du indarrean.

8.- Inola ere ezin izango da bide publikoa aulki, mahai, eguzkitako eta abarrekin okupatu, ezta terrazaren beste elementu osagarri batzuekin ere.

9.- Hala eskatzen zaionean terraza mugatzeko elementuak erretiratu edo horrek sortutako gastuak ordaindu beharko ditu, baldin eta udal zerbitzuek erretiratu edo mugatzen badituzte.

10.- Udalari idatziz adierazi beharko dio terraza baimena eman zitzaion jardueraren inguruabarren edozein aldaketa baldin badago.

11.- Oinezkoen joan-etorriak errespetatuko ditu, baimendutako okupazio mugak gordez.

12.- Horrelakoetan terraza edo jarduera baimenaren funtzionamendua eskasa dela ohartarazita, Udalak eskatu ahal izango ditu egoki deritzen neurri edo mugak, pertsoneri edo ondasunei eragozpenak edo kalteak ekidin aldera, eta lizentziaren titularrak ez du kalte ordainik jasoko aipatu errekerimendua betetzeko helburuz beharrezkoak diren jarduketengatik.

27. artikulua.- Hartuko den azalera mugatzea eta baimena erakustea

1.- Lizentzia lortuta, titularrak bere kabuz seinالاتu beharko ditu lekuan, argi eta zehatz-mehatz, baimendutako okupazioaren gehieneko azaleraren mugak.

2.- Hori zehazteko zoruan udal zerbitzuek adierazten duten mugatzeko elementu eten bat kokatuko da okupazio eremuaren perimetro osoan, eta ezin izango da inola ere baimenik gabe aldatu edo erretiratu. Baimena jaso duen pertsonak eta ez beste inork hartuko du bere gain tokia beti seinalizatuta egongo delako ardura.

3.- Tokia mugatzeko babes mugikorak jarriko dira alboetan, eta babes horiek ez dira inola ere arriskutsuak izango hor zehar ibiltzen diren pertsonentzat, eta ez dute bide publikoan kalterik eragingo edo aldaketarik ekarriko.

4.- Terraza jartzeko baimenaren titularrak, oro har, jendaurrean erakutsi beharko du nahitaez baimena egiaztatzen duen administrazio-agiria, eta horretarako, establezimenduaren fatxadan edo baimendutako terrazaren esparruan jarri beharko du. Agiri horrek argi jasoko ditu baimendutako instalazioaren krokisa, okupazioaren azalera, altzariak, instalazio osagarri guztiak eta baimendutako denboraldia.

28. artikulua.- Udal ikuskaritza

1.- Udalaren ikuskaritza zerbitzuek egoki deritzen ikuskatze eta egiaztatze zerbitzuak egin ahal izango dituzte, terraza jartzeko baimena eman zeneko baldintzak bere horretan jarraitzen dutela egiaztatzeko.

2.- Lan hauek egiteari uko egiteak edo beroriek oztopatzeak baimena baliogabetzea ekarriko dute, egon litezkeen zehazpenei kalterik gabe.

3.- Udal ikuskariak aginte publikotzat jotzen dira Ordenantza honen ondorioetarako, eta beroriek egiten dituzten txostenek ziurtasun presuntzioa izango dute eta frogagarriak izango dira, administratuek euren alde aurkez ditzaketen gainerako frogei kalterik egin gabe.

VI. TITULUA. BAIMENA IRAUNGITZEA

29. artikulua.- Baimena iraungitzeko arrazoiak

Baimenak iraungi egingo dira baldin eta:

- a) Titularrak edo titularrek baliogabetzen badute edo uko egiten badiote.
- b) Titularra hiltzen bada.
- c) Honako ordenantzan baimentzen ez diren transmisioak egiten badira.
- d) Udalak baimena baliogabetzen badu.

30. artikulua. Iraungitzearen ondorioak

1.- Baimena automatikoki iraungiko dira aurreko artikuluan aipatutako arrazoiren bat gertatzen denean, eta titularrek ez dute kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

2.- Baimenaren titularrak 6 hilabeteko epea izango du gunea jatorrizko egoeran uzteko lana egin ditzaten eskatzeko, betiere titularrak ordainduta.

31. artikulua. Baimenari uko egitea

1.- Terraza jartzeko baimenari uko egin nahi bazaio, uko-agiria udaletxeko erregistroan entregatu beharko da.

2.- Terrazako elementu guztiak kendu beharko ditu eta bide publikoa jatorrizko egoeran uzteko konpontze eta berrezartze lanen gastuen kostu osoa ordaindu beharko du.

3.- Udal zerbitzuek betebeharrak hauek behar bezala bete direla egiaztatu ondoren ekingo zaio eskatutako baja emateari.

32. artikulua.- Baimena baliogabetzea

1.- Baimena eman duen Administrazioak noiznahi baliogabetu ahal izango du, baimen hori interes publikoaren arrazoiak direla-eta, beroriek bateragarriak ez direnean gerora onartu diren baldintza orokorrekin, jabari publikoan kalteak eragin edo beroriek herritarren interes handiagoko beste jarduera batzuetarako erabiltzea eragozten dutenean; era berean baliogabetu ahal izango dira erabilpen orokorra hondatzen denean.

2.- Berdin-berdin baliogabetu ahal izango dira beroriek lagatzeko arrazoiak desagertzen direnean, edo beste batzuk agertzen direnean, baimena eman zenean existitu balira, ez ematea justifikatuko zuketena.

3.- Jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu bereziagatiko Tasa edota dagokion Ordenantzan jasotako bestelako tasaren bat ordaindu ez dela egiaztatzen denean ere baliogabetu egingo dira.

4.- Horrez gain, hurrengo arrazoi hauek ere Ordenantza honen helburu diren baimenak baliogabetuko dituzte:

- a) Baimen lizentzian dauden datuak manipulatu edo aldatzea
- b) Baimendutakoa baino udal jabari publikoaren gune handiagoa erabili edo aprobetxatzea, aprobetxamenduaren ezaugarriak aldatzea edo baimenik gabe beste alterazioen bat egitea.
- c) Udal ikuskaritzarako lanei uko egitea edo lanok oztopatzea

5.- Baimena titularrari edo erantzuteko betebeharra duen pertsonari egotzi dakizkiokkeen arrazoiengatik baliogabetu izanak titular horri beste baimen bat jasotzeko bidea eragotziko dio sei hilabeteko epean, aipatu baimena baliogabetu zenetik zenbatzen hasita.

33. artikulua.- Udalak betebeharrak betearaztea

1.- Obligazioa duen pertsonak 32.1 artikuluan xedatutakoa horretarako ezarritako epean beteko ez balu, Udalak goiko paragrafoetan aipatutako jarduketak burutu ahal izango lituzke betearazpen subsidiario izeneko izapidean, 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituz.

2.- Aurrekoa gorabehera, Udalak baimenaren titularrak bete behar dituen ekintzak baterazte aldera isun hertsatzaileak jarri ahal izango ditu behin baino gehiagotan eta tarteka, zein ekainaren 30ean onartu zen Euskadiko zoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 227. artikuluan xedatutakoari jarraitutakoa ordaintzeko nahikoa izango diren.

VII. Titulua.- ARAUHAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

34. artikulua.- Arau-haustek

Honako Ordenantzan ezarritakoa urratzen duten ekintza edo omisioak Administrazio-zehapentzat joko dira

35. artikulua.- Arau hausteen sailkapena

Administrazio-arau haustek horrela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak

36. artikulua.- Arau hauste oso larriak

Arau hauste oso larriak dira:

- a. Terrazak ipintzea baimenik gabe edo baimendutako denbora eta espazioa gainditzea, baldin eta beste pertsona batzuen eskubide zilegiei edo lasaitasunari, eta ekintzaren garapen normalari eragozpenak sortzen badizkio edo osasungarritasunari era larrian eragiten badio.

Kalifikazio horren ondorioetarako, garrantzizko muga gainditze legez hartuko dira baimendutako azalera baino 8 m^2 gehiagoko okupazioa egitea, baimendutakoa baino $\frac{1}{4}$ mahai gehiago jartzea edo ordutegia gehienez baimendutakoa baino bi ordutik gora luzatzea.

- b. Zerbitzu publiko baten funtzionamendu normala eragozte edo beraiek larriki oztopatzea edo arau-haustezko jarduerak gelditzeko agintaritzaren agenteek emandako aginduei desobedientzia larria egitea.
- c. Zerbitzu publiko batean azpiegiturak, instalazioak edo elementuak larriki kaltetzea, kalteak 1.200 € edo gehiagokoak baldin badira.
- d. Erabilera eskubidea duten beste pertsona batzuei gune publiko baten erabilera debekatzea.
- e. Gune publikoari, bere instalazioei edo elementuei kaltea sor diezaieketen ekintzak egitea.
- f. Datu eta eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak faltsuak izatea edo beroriek manipulatzeko
- g. Urte bateko epean arau hauste larri bi edo gehiago egitea, berdinak edo ezberdinak

37. artikulua.- Arau hauste larriak

Arau hauste larriak dira:

- a. Baimendutako mahai eta aulki gehiago jartzea, betiere arau hauste oso larrietarako ezarritako kopurutik behera.
- b. Muga ordutegia gainditzea baimendutako bi ordutik beherako tartean.

- c. Terrazak oinezkoak eta ibilgailuak zuzen ibiltzea oztopatu edo zailduko duten moduan ipintzea
- d. Terrazaren segurtasun, osasungarritasun, apaingarritasun eta garbitasun neurriak behar bezala ez mantentzea
- e. Terraza osatzen duten edozein elementutan publizitatea jartzea, honako Ordenantzan zehaztutakoa hautsiz.
- f. Musika ekipoak jartzea
- g. Honako Ordenantzan zehaztutako baldintzekin bat ez datozen eguzki oihalak eta eguzkitakoak jartzea.
- h. Udalaren baimenik gabe, terrazan instalazio elektrikoak edo bestelakoak jartzea
- i. Zerbitzu publiko baten azpiegiturak, instalazioak edo elementuak larriki kaltetzea, kaltea 1.200 eurotik beherakoak badira.
- j. Urte bateko epean arau hauste arin bi edo gehiago egitea, hauek berdinak edo ezberdinak izanik

38. artikulua.- Arau hauste arinak

Arau hauste arinak dira:

- a) Okupazio gunea egunero eta modu egokian ez garbitzea.
- b) Establezimenduan udal baimena ez erakustea
- c) Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea, betiere arau hauste larriak edo oso larriak ez badira.

39. artikulua.- Zehapenak

Aurreko artikulua aitutzen dituen arau hausteek hurrengo zehapen hauek ezartzea ekar lezakete:

- a) Arau hauste arinetarako 750 eurorainoko isuna
- b) Arau hauste larrietarako 1.500 eurorainoko isuna.
- c) Arau hauste oso larrietarako 3.000 eurorainoko isuna

Arau hauste larriek eta oso larriek lizentzia baliogabetzea ere ekarri ahal izango dute.

40. artikulua.- Zehapenen graduazioa

Zehapenen zenbatekoa graduatzeko aintzat hartuko dira arau haustearen izaera, eragindako kaltearen larritasuna, erruduntasun maila, arau haustea behin baino gehiago egitea, arau hauslearen balizko onura eta gerta litezkeen beste goera batzuk.

41. artikulua.- Elementuak instalaziotik erretiratzeko betebeharra

1.- Zehapen jardunbidetik eratorritako erantzukizun administratiboez gain, arau hausleari exijitu ahal izango zaio terrazako elementu guztiak erretira ditzala eta aldatutako egoera bere horretara ekar dezala, eta baita Udal Administrazioari egindako kalteak ordain diezazkiola ere.

2.- Obligatuak ez badu instalazioa erretiratzen isun hertsatzaileak ezarri ahal izango zaizkio Euskal Herriko Zoru eta Hirigintza Legean ezarritakoari jarraituz edota obligatuari betearazte subsidiarioa agindu.

42. artikulua.-Arau hausteen preskripzioa

1.- Ordenantza honetan adierazitako arau hauste oso larriek hiru urteren buruan preskribituko dute, larriek bi urteren buruan eta arinek 6 hilabeteren buruan

2.- Arau hausteen preskripzio-epea arau haustea egiten den egunetik bertatik hasiko da zenbatzen.

3.- Arau hauste jarraituak badira, preskripzio-epea arau haustea den ekintza edo omisioa eten edo bukatzen den unetik hasiko da zenbatzen.

4.- Zehapen prozedura hasten bada, interesatua horren jakitun izan zein ez, preskripzioa eten egingo da, eta berriro hasiko da aipatu zehapen espedientea hilabetetik gora geldiarazten bada, ustezko arduradunari egotzi ezin dakioken zerbaiten erruz.

43. artikulua.- Zehapenen preskripzioa

1.- Arau hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urteren buruan preskribituko dute, larriek bi urteren buruan eta arinek urte baten buruan.

2.- Zehapenak preskribatzeko epea zehapena ezartzen diren ebazpenek finkotasuna lortu eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

3.- Betearazpen prozedura hasten bada, interesatua horren jakitun izan zein ez, preskripzioa eten egingo da, eta epea berriro hasiko da betearazpen prozedura hilabetetik gora geldiarazten bada ustezko arduradunari egotzi ezin dakioken zerbaiten erruz.

44. artikulua.- Arduradunak

1.- Arau hauste administratiboan arduradunak terraza lizentzien titularrak izango dira, hauek arau haustea beste hirugarren batek egin duela frogatu ezean.

2.- Ordenantza honetan zehazten diren betebeharrak pertsona batek baino gehiagok hartu behar baditu bere gain, denak izango dira egindako arau hauste eta ezarritako zehapenen erantzule solidario.

45. artikulua.- Zehapen jardunbidea

Ordenantza honetan araututako arau hausteei sortutako zehapen-prozedura administratiboak izapidetuko dira otsailaren 20an onartu zen Euskal Autonomi Erkidegoko Herri Administrazioek duten zehatzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legean eta ezar daitekeen bestelako araudietan xedatutakoari jarraituz.

46. artikulua.-Kautelazko neurriak

Zehapen prozeduraren edozein unetan, berorri hasiera emateko eskumena duen udal organoak, berak hala erabakita edo epaileak proposatuta, kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu prozedura behar bezala burutuko dela bermatzeko, har litekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko edo arau haustearen ondorioak beitzeko.

47. artikulua.- Udal lizentziarik gabeko instalazioak

1.- Erabilpen publikorako lurzorua lizentziarik gabe okupatzea terrazak jarriz arau hauste urbanistikoa da, honako Tituluan araututako arau hausteen kaltetan gabe. Terraza desmuntatu, instalazio osoa erretiratu eta Ordenantza honetan zehaztutako zehapenak ezartzeaz gain, arduradunari indarrean dagoen hirigintza-araudian azaltzen diren zehapenak jarri ahal izango zaizkie, dagokien prozedura bideratu ondoren.

2.- Kautelazko neurri gisa Udal agintaritzak berehala erretiratuko ditu bide publikoan instalatutako baimenik gabeko terrazak eta udal biltegi-tarata eramango ditu. Titularrak ez baditu hiru hilabeteren buruan gordeta dauden

tokitik jaso, Udalak erretiratutako elementu hauek hobekien deritzen moduan erabiltzeko aukera izango du.

3.- Lizentziaren indarraldia amaitu ondoren, terrazak bertan jarraitzea, udal-baimenik gabe jartzearen parekotzat joko da diziplinako eraginetarako.

Lehenengo Xedapen Gehigarria

Herriko jai nagusietan Udalak baimendu ahal izango du terrazaren ordutegia luzatzea.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Portuko jabari publikoko gunea Ordenantza honetatik kanpo geratzen da, dituen ezaugarriak direla eta, Portuko Agintaritzarekin adostutako proiektu batean arautu beharko delako.

Xedapen iragankorra

Honako Ordenantza hau 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera instalatzen diren terrazei ezarriko zaie. Baina eskaerak aurkeztu beharko dira ordenantza hau indarrean sartzen denean.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetu egiten da bide publikoetan terrazak instalatzea arautzen duen gaur egun indarrean dagoen Ordenantza eta baita gai honi buruzko beste xedapen arautzaileak ere.

Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onarpena "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta 15 egunera.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	24
1. artikulua.- Xedea.....	24
2. artikulua.- Terraza kontzeptua.....	24
3. artikulua.- Ezartzeko eremua.....	24
4. artikulua.- Lizentzia onartzea.....	24
5. artikulua.- Lizentzia jasotzeko baldintzak.....	24
6. artikulua.- Denbora eremua edo terrazak ezartzeko aldia.....	25
II. TITULUA.- BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATEA.....	25
7. artikulua.- Gehienez jar daitezkeen mahai eta aulki kopurua.....	26
8. artikulua.- Altzariak bete beharreko baldintzak.....	26
9. artikulua.- Altzarien diseinua.....	27
10. artikulua.- Alboetako babesak.....	28
III. TITULUA.- BALDINTZA OROKORRAK.....	28
11. artikulua.- Muga orokorrak.....	28
12. artikulua.- Hiri-altzarien arteko gutxieneko distantzia.....	29
2. atala. Terrazak ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan jartzea..	30
13. artikulua.- Luzera.....	30
14. artikulua.- Okupazioa.....	30
15. artikulua.- Fatxada bi kaletara duten establezimenduak.....	31
3. atala.- Oinez gunetan eta gunek berezietan jarritako instalazioak.....	31
16. artikulua.- Oinez gunek.....	31
17. artikulua.- Enparantza eta gunek bereziak.....	32
IV: TITULUA.- BAIMENAK IZAPIDETZEA ETA EMATEA.....	33
18. artikulua.- Eskaerarako legitimazioa.....	33
19. artikulua.- Baimen eskaria eta aurkeztu behar den dokumentazioa.....	33
20. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea.....	34
21. artikulua.- Baimena ematea.....	35
22. artikulua.- Berritzea.....	35
23. artikulua.- Baimenaren transmisioa.....	36
V. TITULUA.- BALIMENDUTAKO ERABILPENAREN BALDINTZAK.....	37
24. artikulua.- Instalazioaren baldintzak eta berau erretiratzea.....	37
25- artikulua.- Ordutegia eta funtzionamendu-araudia.....	37
26. artikulua.- Lizentziaren titularraren betebeharrak.....	38
27. artikulua.- Hartuko den azalera mugatzea eta baimena erakustea.....	39

28. artikulua.- Udal ikuskaritza.....	39
VI: TITULUA.- BAIMENA IRAUNGITZEA.....	39
29. artikulua.- Baimena iraungitzeko arrazoiak.....	39
30. artikulua.- Iraungitzearen ondorioak.....	39
31. artikulua.- Baimenari uko egitea.....	40
32. artikulua.- Baimena baliogabetzea.....	40
33. artikulua.- Udalak betebeharrak betearaztea.....	41
VII. TITULUA.- ARAUHAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.....	41
34. artikulua.- Arau haustek.....	41
35. artikulua.- Arau hausteen sailkapena.....	41
36. artikulua.- Arau hauste oso larriak.....	41
37. artikulua.- Arau hauste larriak.....	42
38. artikulua.- Arau hauste arinak.....	43
39. artikulua.- Zehapenak.....	43
40. artikulua.- Zehapenen graduazioa.....	43
41. artikulua.- Elementuak instalaziotik erretiratzeko betebeharra.....	44
42. artikulua.- Arau hausteen preskripzioa.....	44
43. artikulua.- Zehapenen preskripzioa.....	44
44. artikulua.- Arduradunak.....	45
45. artikulua.- Zehapen-jardunbidea.....	45
46. artikulua.- kautelazko neurriak.....	45
47. artikulua.- Udal-lizentziarik gabeko instalazioak.....	45
Lehenengo Xedapen Gehigarria.....	46
Bigarren Xedapen Gehigarria.....	46
Xedapen iragankorra.....	46
Xedapen indargabetzailea.....	46
Azken xedapena.....	46